# pk Lanaur HIRU

**bazkideentzako informazioa**

información para socias y socios



www.pixkanakakaskari.org/lanaur

| Merkatuko erreferentziak | 2023 metatutako emaitza |
|---|---|
| Eurostoxx50: +13,7<br>Ibex35: % 12,2<br>Bonoa 10urte: %3,28<br>KPI: %+0,8 (Otsaila) | **%2,96** |

**Zorroaren banaketa**

| | |
|---|---|
| Err. finkoa | %60,7 |
| Err. aldakorra | %33 |
| Inb. altern. | %6,3 |






Martxoa 2023

## Joera positiboa

Martxoan Silicon Valley Bankek eta Credit Suissek sustoak eman dizkiguten arren, errenta aldakorreko merkatu gehienetan joera positiboa da oraindik, eta horrek mesede egiten dio gure BGAEaren likidatiboari

Banku horien porrotak ekarri diguna banku zentralen tasen igoeraren erritmoari buruzko eztabaida da, eta interes-tipoen sabaia non egon daitekeenaren galdera.

Adi jarraituko dugu.



# BGAE Lanaur HIRU: heriotza

Bazkide aktiboa hilez gero, alargunak eta Gizarte Segurantzako pentsioa jasotzeko eskubidea sortzen duten umezurtzek pentsio hori osatuta izango dute bazkide aktiboaren soldataren %50eraino, ezkontide alargunaren kasuan, 82 urtera arte, eta %20ra arte, Gizarte Segurantzak pentsioa aitortzen zaien umezurtzen kasuan. Pentsioen eta osagarrien multzoak ezingo du bazkidearen soldataren %100a gainditu. Konpromiso horiek LANAUR BAT BGAEak betetzen ditu.

ALARGUNA

| Giz Seg. Pentsioa | BGAE osagarria | %50 arte |
|---|---|---|

UMEZURTZA

| Giz Seg. Pentsioa | BGAE osagarria | %20 arte |
|---|---|---|

## Zein direurekin estaltzen dira konpromiso horiek?

1 Bazkidearen aldeko ekarpenak (enpresak jarritakoak)

2 F.I.F.

* Bazkide osoak egindako borondatezko ekarpenak ez dira ukitzen. Onuradunentzat eskuragarri egongo dira.

Ezarritako epean pentsio-osagarriak estaltzeko behar diren kopuruak kalkulatu ondoren, lehenengo bazkidearen funts pertsonalak hartzen dira.

Konpromisoak betetzeko nahikoa ez bada, FIFa (Baliogabetze eta Heriotzen Funtsa) erabiltzen da, eta, azken kasuan, bazkide babesleak betebehar subsidiarioa du.

**PK aldizkariko harpidedun egiteko: www.pixkanakakaskari.org/aldizkaria**

info+ www.pixkanakakaskari.org/lanaur
pk@kutxabank.es / 943001787